

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 74/2019 Erabakia, otsailaren 12koa, Arabako enpresetan behin betiko kontratazioa sustatzeko laguntzen 2019ko ekitaldirako deialdia onartzea

Behin betiko kontratazioa bermerik onena da behin-behinekotasun tasa altuak eta lan merkatuaren segmentazioa murrizteko eta, hala, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Azken hilabeteotan Arabako langabetu tasa jaisten ari da, baina kontratazio egonkorra oraindik ez da lortu gure lan merkatuan, azken urtean Araban sinaturiko kontratuen ehuneko 94 aldi baterakoak izan direlako, eta hori dela-eta administrazioek kontratu mugagabeak sustatu behar dituzte nahitaez.

Arabako Foru Aldundiak 2015-2019 legegintzaldiko plan estrategikoa onartu zuen, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 143/16 Erabakiaren bidez. Ildo estrategikoen artean, 1.4. puntuan, hau zehazten zen: gazteen eta ingurune ekonomiko berriari egokitzeko zailtasunak dauzkaten langileen kolektiboak lan merkatuan txertatzea erraztuko duen kalitatezko enplegua sortzea.

Testuinguru horretan, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak enpresentzako zuzeneko laguntza tresna bat garatzea aurreikusi du, laneratzeko zailtasun bereziak dauzkaten kolektiboak kontratatuzko. Laguntza horien bidez biztanleria aktiboaren okupazioa handitu eta kalitatezko enplegu egonkorra gehitu nahi da. Halaber, bere ezaugarrien artean gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, berrikuntza eta gizarte eta lurralde kohesioa dauzkan lan merkatu bat ere lortu nahi da.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorreari. Araudi hori martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu da.

Langileak urte osoan kontratatzen direnez eta, deialdiaren izaera eta helburuarengatik, laguntzak emateko hurrenkera bat ezartzeko irizpide objektiboak ezartzea desegokia denez, lehia irekian emateko araubide bat justifikatzen da.

Ahalik eta gehien zabaltzeko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun eta berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak behar bezala betetzeko, nahitaez ezarri behar da laguntzen deialdia, eta deialdi horri lotu beharko zaizkio 2019ko ekitaldian behin betiko kontratazioa sustatzeko laguntzak.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hartutako

ERABAKIA

Lehenengoa. Behin betiko kontratazioa lehia irekiko prozeduraren bidez sustatzeko laguntzen 2019 deialdi publikoa onartzen da, erabilgarri dagoen aurrekontuaren esparruaren barruan. Gehieneko hornidura 321.850,00 eurokoa izango da eta deialdia Erabaki honi eransten zaio.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka araubidean dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretua), haren ondorengo aldaketak (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) eta ebazpen honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuko 30.5.02.35.02.470.00.01 partidaren kontura ordainduko dira (xedapen erreferentzia: 105.339/000), gehieneko zenbatekoa 321.850,00 euro izanik.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2 artikulua betetzeko, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren. Horretarako ebazpena emango du, deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Erabaki honek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke Foru Gobernu Kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA BEHIN BETIKO KONTRATAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

2019ko deialdiaren oinarriak

1. artikulua. Helburua

Deialdiaren helburua biztanleria aktiboaren enpleguan egonkortasuna ematen laguntzen duten Arabako enpresek langabetuak kontratatzea sustatzea da.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko guztizko zenbatekoa

2.1. Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuko 30.5.02.35.02.470.00.01 partidaren kontura ordainduko dira (xedapen erreferentzia: 105.339/000), gehieneko zenbatekoa 321.850,00 euro izanik.

2.2. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Hauek jasoko ahalko dituzte deialdi honetan jasotako dirulaguntzak:

– Enpresa ertain eta txikiek (EET), egoitza soziala eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan dutenek eta, gutxienez, Arabako Lurralde Historikoan lan zentro bat kokatuta dutenek.

– Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukaten autonomoek.

– Lan zentroa Arabako Lurralde Historikoan duten Irabazteko xederik gabeko elkarteek eta erakundeek.

3.2. Deialdi honen ondorioetarako, enpresa bat EET izango da 250 soldatapeko baino gutxiago badauka, haren urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada eta haren urteko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada.

3.3. Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatzetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren, bai dirulaguntza ordaintzeko unearen aurretik.

Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizaziorako kontu koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.4. Enpresa onuradunek batez besteko langile kopurua mantendu edo handitu beharko dute. Horrenbestez, behin betiko kontratua egin eta ondorengo sei hilabeteetako batez besteko langile kopuruak kontratua egin aurreko sei hilabeteetakoa edo handiagoa izan beharko du.

3.5. Enpresa onuradunek langileei jakinarazi beharko diete Arabako Foru Aldundiari diru laguntza eskatu diotela beren kontratuengatik.

3.6. Ezingo dute dirulaguntzarik jaso:

– Sektore publikoko administrazioek, erakundeek eta enpresek. Haien barruan sartzen dira kontrolatzeko edo zuzentzeko edo gobernu organoetako kide gehienak izendatzeko boterea administrazio publikoen eskuetan daukaten erakundeak eta enpresak, edo haien ondarea edo finantzabidea, zuzenean nahiz zeharka, gehien bat funts publikoak badira edo haietatik badator.

– Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan xedatutako debekuren bat daukaten enpresek edo erakundeek.

– Administrazioan eta auzitegietan dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera kentzen dien zigorren bat duten edo horretarako ezintzen duten legezko debekuren bat daukaten enpresek, sexu arrazoien ziozko bereizketagatik jarritakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

4. artikulua. Diru laguntza jaso dezaketen jarduerak

4.1. Dirulaguntza jaso ahalko da dirulaguntzaren onuradunek langabezia daudenak Arabako lan zentroetan lanaldi osoan nahiz partzialean behin betiko kontratatuzko. Kontratu horiek indarreko lanaren legedia bete beharko dute.

4.2. Lanaldi partzialeko kontratazio mugagabeetarako laguntzek lanaldiaren ehuneko50 hartu beharko dute gutxienez.

4.3. Hona diru-laguntza horietaz baliatu ezin daitezkeenak:

– aldizkako kontratu finkoak.

– adostasunez edo borondatezko bajaz lan harreman mugagabe bat amaitu duten pertsonen kontratazioak, deialdi honetan laguntza eskatzea eragin duen kontratua sinatu aurre-aurreko hamabi hilabeteko epean, salbu eta baja hori langile autonomo gisa egiten zuen jarduera amaitu izanagatik bada.

– Enpresan bertan edo talde bereko enpresetan lan jarduera bertan behera utzi duten pertsonen kontratazioak, baldin eta jarduera bertan behera utzi badute deialdi hau ALHAOn argitaratu aurreko 30 egun naturalen eta eskaerak aurkezteko epearen amaieraren (2019ko urriaren 15a) arteko denbora tartean. Talde bereko enpresatzat joko da Europar Batzordearen ETE kontzeptuaren definizioaren arabera edozein enpresa elkartu edo/eta lotu (Batzordearen 2003/361/EE Gomendioa, mikroenpresen, enpresa txikien eta ertainen definizioari buruzkoa).

– Aldi baterako laneko enpresek kontratatutako pertsona enpresa erabiltzaileetan zerbitzuak emateko jartzeko egindako kontratazioak.

– Arabako Foru Aldundiak, haren enpresek eta gainerako erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko egindako lan kontratuak.

– Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1 artikulua aipatzen dituen izaera bereziko lan harremanak.

4.4. Erakunde eskatzaile bakoitzeko hiru kontrataziorako dirulaguntza emango da gehienez eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratuta egon beharko dute.

4.5. Sortutako kontratu mugagabeak badirauela egiaztatuzko kontratazioaren ondorengo 24 hilei dagozkien nominak aurkezteko eskatuko da.

Kontratuak eskatutako gutxienerako iraunaldia baino lehenago azkenduz gero emandako dirulaguntza eta dagozkion interesak itzuli beharko dira.

5. artikulua. Kontratatutako pertsonen bajak

5.1. Eskatzen den gutxienerako 24 hileko epean kontratatutako pertsonak langilearen beraren borondateagatik, hiltzeagatik, lanerako ezintasunagatik edo enpresaren borondatez kanpoko zioengatik baja hartuko balu, lehenago kontratatutakoaren eginkizun eta baldintza berak dituen beste langile bat kontratatuz ordeztu ahalko du baja hura gertatu eta 30 egutegiko eguneko epean.

Kasu horretan, gertatutako bajaren kausak eta kontratazio berria jakinarazi beharko ditu, kontratu berria egin eta hurrengo egunetik 15 egutegiko eguneko epean, horren frogagiriak erantsiz (kontratu berriaren kopia, Gizarte Segurantzako alta eta errolda ziurtagiria, kontratatutako pertsona berriaren NANaren eta lan bizitzaren kopia).

Araudi honetan, diziplinazko kaleratzeak ez dira enpresaren borondatezkotzat joko, baldin eta ebazpen judizialak kaleratzea bidezkotzat jotzen bada. Ondorioz, enpresak Arabako Foru Aldundiari bidali beharko dio kaleratze horri buruzko dokumentazio guztia, egiaztatzeko adostua edo bidezkoa izan dela (adiskidetze ekitaldiaren akta, lan arloko epaitegiaren epaia...). Ez da ordezkapenik onartuko kaleratzea bidegabekotzat edo deuseztat jotzen bada.

Dokumentazio hori aztertuta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak ordezkapena onartzen duen erabakiko du, lehenago esleitutako laguntzaren onurei eutsiz edo, ordezkapena frogatzen ez bada, laguntzaren hainbanaketa egin edo itzuli behar den.

Kontratu berriaren nahiz kontratatutako pertsonaren ezaugarriak aldatzeak ez du inolaz ere ekarriko hasieran esleitutako zenbatekoa handitzea.

24 hileko gutxieneko epea zenbatzeko lehen pertsona kontratatuari nahiz ordezko pertsonari dagokien kontratuaren denbora hartuko da kontuan.

5.2. Baja emateko erabakia jakinarazi aurretik gertatuko balitz, aurkeztutako eskaerarako eskubidea galduko da.

5.3. Ordezkapen bakarra onartuko da diruz lagundutako kontratu bakoitzeko.

5.4. Kontratu berririk egiten ez bada nahiz ordezkapen bat baino gehiago egon bada emandako dirulaguntza hainbanatuko da, eta dagozkion zenbatekoa eta interesak itzuli beharko dira.

5.5. Oro har, araudi honen ondorioetarako, ez dira enpresaren borondateaz kanpoko zioak izango kaleratze kolektiboak, ezinbesteko kausen ondorioz izan ezean, eta geroago administrazio eskudunak egokitzen, desegokitzen edo baliogabetzen jo arren.

6. artikulua. Kontratazioak egiteko epea

Diruz lagundutako kontratazioak 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urriaren 15era arte egin beharko dira, azken eguna barne.

7. artikulua. Kontratatzen diren pertsonen baldintzak

Kontratatzen diren pertsonak, indarreko legedian eskatutako baldintzak ez ezik, baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

– Langabezian egotea. Pertsona bat langabezian dagoela joko da, baldin eta ez badago Gizarte Segurantzako erregimenetako batean izena emanda kontratazioa egin baino, gutxienez, bost egun lehenagotik.

– Lanbide enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea, kontratazioa egin baino, gutxienez, bost egun lehenagotik.

– Enpresaren zuzendaritzan karguak dauzkaten edo enpresen administrazio organoetako kideak diren lehen edo bigarren mailako odolkidetasuneko edo kidetasuneko harremanik ez izatea.

– Enpresan partaidetzarik ez izatea, ezta, halakorik balego, talde bereko enpresetan, eta partaidetzarik ez eduki izana kontratazioaren aurreko urtean.

8. artikulua. Laguntzen zenbatekoak

Deialdi honetan jasotako laguntzak 5.000,00 euroko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira, gizonei egindako kontratu mugagabe bakoitzeko, eta 6.000,00 eurokoak emakumei egindako bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratu mugagabeen kasuan, emango den dirulaguntza kontratatutako lanaldiaren proportziokoa izango da.

9. artikulua. Emateko prozedura eta hura izapidetzeko eskudun diren organoak

9.1. Dirulaguntza emateko prozesua lehia irekia izango da. Deialdi honen ondorioetarako lehia librea funtsak eskaerak jaso ahala banatzeko prozedura da, sarrera erregistroaren hurrenkera lehenetsiaren arabera eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badira, aurrekontu hornidurek ahalbidetu arte. Aurkeztutako dokumentazioa osagabea bada eskatzaileak eskatutako dokumentazio osoa aurkezten duen data izango da aurkezpenarena.

9.2. Aurrekontua agortutakoan, Arabako Foru Aldundiak erabakia emango du deialdian erabilgarri dagoen aurrekontua agortuzat joz. Erabilgarri dagoen kredituaren zenbatekoa agortzen den unearen ondoren jasotako eskaerak erreserbako eskaeren zerrenda batean geratuko dira. Uko egitearen, ezarritako baldintzak ez betetzearen eta beste edozein zioen ondorioz geldikinak geratuz gero, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak dirulaguntzak esleitu ahaliko dizkie zerrenda horretan sartutako eskaerei eskabidea aurkezteko ezarritako ordena betez eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontua ixteko datak ahalbidetzen badu.

9.3. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak izapidetuko du eta dirulaguntza proposamen arrazoituak organo eskudunari igorriko dizkio. Kudeaketa horretan sor litezkeen gorabeherak ebazteko batzorde bat eratuko da. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendariak, Zuzendaritza horren zerbitziburutzak eta zerbitzu horretako teknikari batek osatuko dute. Idazkari jardungo du teknikari horrek.

10. artikulua. Eskaerak aurkezteko epeak eta modua

10.1. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauek indarrean jartzen direnean hasiko da eta 2019ko urriaren 15en bukatuko da, hura barne.

10.2. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia plaza, 5 - 01001, Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio prozedura erkidearenean, ezarritakoa bete beharko da.

10.3. Deialdi honetan deskribatzen diren laguntzak eskatzeko inprimaki ereduak eskuragarri daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan (Probintzia Plaza 5 - 1. solairua, 01001 Gasteiz), bai eta Interneteko orri honetan ere: www.araba.eus.

Inprimaki horiei dokumentu hauek erantsi beharko zaizkio:

- Enpresaren IFZaren edo NANaren fotokopia, pertsona autonomoak badira.
- Enpresaren jarduera azaltzeko memoria.
- Laguntza dakarren lan kontratuaren fotokopia, alderdi biek sinatuta, eta Lanbideri behar bezala jakinarazita.
- Kontratututako pertsonaren errolda ziurtagiriaren fotokopia.
- Kontratututako pertsonaren Gizarte Segurantzako altaren kopia.
- Kontratututako NANaren edo AIZaren fotokopia.
- Laguntza xede den kontratazioaren ondoren kontraturiko pertsonaren lan bitzita.
- Kontratututako pertsona erregistro publikoan enplegu eskatzaile gisa ageri delako egiaztagiria (Lanbide, INEM, eta abar).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetako batez besteko plantillari buruzkoa (kontratututako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona).

10.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide ereduak identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

10.5 Dirulaguntza eskabidea aurkezteak baimena ematen dio organo kudeatzaileari Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoeraren ziurtagiriak lortzeko.

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak behar diren ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek gutun ziurta-tuaren bidez jakinaraziko dira, Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa ere kontuan hartuta.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke Foru Gobernu Kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunen hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administra-zio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

12.1. Dirulaguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agindu bezala gauzatuko da, bertan zehazten diren baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Emateko ebazpena onartzean justifikatu behar den aurrerakinaren kontzeptuan dirulaguntzaren ehuneko 100 ordainduko da.

12.3. Arabako Foru Aldundiak ordaindutako dirulaguntza justifikatuztat jotzeko, erakunde onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du 2022ko abenduaren 31a baino lehen.

– Diruz lagundutako kontratazioaren ondorengo 24 hilabeteen nominen eta ordainagirien kopiak. Ordezkapen bat egonez gero, hileko horiek kontratatutako lehen pertsonaren eta ordezkoaren nominekin osatuko dira.

– Diruz lagundutako kontratazioari lotutako inolako beste dirulaguntzarik jaso ez izanaren aitortpena.

– Langileen izen zerrenda eta kotizazioen likidazioen zerrenda, erakunde finantzarioaren balidazio zigituarekin, edo kotizazioen ordainketen jatorrizko bankuko kontu laburpena. Kon-tratazioaren ondorengo 24 hilabetei dagozkien dokumentu horiek guztiak.

– Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria edo bestelako dokumentazioa, diruz lagundu-tako kontratazio mugagabearen aurreko sei hiletatik haren ondorengo sei hilabetera arte batez besteko plantillari eutsi izana frogatzen duena. Dokumentazio hori Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak eska diezazuke, justifikazio data baino lehen.

– Diruz lagunduta kontratatutako pertsonaren lan-bizitza eguneratuaren kopia.

12.4. Erakunde onuradunak dagozkin Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa sartu beharko du, eta Arabako Foru Aldundiak egiaztatu beharko ditu ordainketa horiek eta dagokin justifikazioaren txostena egin beharko du. Baldin eta egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.5. Halaber, jasotako zenbatekoak itzuli eta dirulaguntza ordaindu zen unetik dagozkion legezko interesak eskatuko dira laguntzak jaso dituzten pertsonak/enpresek oinarri hauetan, emateko ebazpenean eta aplikatu behar diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

12.6. Itzultzeko prozedurarako Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutako beteko da.

13. artikulua. Kontrola, ebaluazioa eta ikuskapena

Arabako Foru Aldundiak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetarako zuzen aplikatzen direla bermatzeko behar diren kontrol eta ebaluazio ekintzak egin ahalko ditu, eta enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri oro aurkeztu beharko dute.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntza bateraezina izango da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek kontzeptu eta xede beragatik emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza mota lortzearekin, salbu eta Gizarte Segurantzak eginiko murrizketekin eta sozietateen gaineko zergaren murrizketekin.

Ez dira bateragarritzat joko estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak emaniko hobariekin hornituriko kontratuak.

15. artikulua. Eskaeran jarritako datuen aldaketa

15.1. Aurkeztutako eskaeretan jarritako datuetan gertatzen diren aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

Informazio hori aztertuta, Arabako Foru Aldundiak hasieran esleitu eta aurreratutako kopurua aldatu ahalko du eta, kontratazioa gertatzen den ezaugarriak edo baldintzak nabarmen aldatuz gero, ordaindutako dirulaguntza eta dagozkion interesak itzultzeko eskatu ahalko du.

15.2. Eskaeran jasotako datuak aldatzera eraman duten arrazoiak jakinarazten ez badira, dirulaguntza itzultzeko zioa izan ahalko da, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz aldaketa horrek dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea ekarri badu.

16. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio deialdi honen oinarri espezifikoak interpretatzeko, bai eta oinarriok behar bezala aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ebazpenen bitartez garatzeko ere.

17. artikulua. Enpresaren deslokalizazioa

Enpresen deslokalizazioari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Aginduaren 43., 44., 45. eta 46. artikulua aplikatuko dira.

18. artikulua. Emandako laguntza onartzea

Laguntza ematearen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean erakunde onuradunak hari berriaz uko egiten ez badio emateko ebazpenean ezarritako baldintzetan onartu dela ulertuko da.

19. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretuaren eta haren ondorengo aldaketaren bidez (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) aurreko dekretuari egiten dion aldaketaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arau berria; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onartzen duena, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.